

Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXANEKO KIDEA

Zaramaren kontuak eta kostuak



dal instituzio politikoek arazo larria izan dute beti zaramarekin. Etxeko zaborrak udalek kudeatu behar dituzte eta hor xahutzen da udalen aurrekontuen atal garrantzitsu bat.

Hots, zaramaren inguruan diru asko mugitzen da. Gure etxeetatik ateratzen den unetik merkantzia berria da eta bere pisu eta kalitatearen arabera prezio bat jasotzen du.

Duela ia hogeit urte, Zergarbi eta Zabalgarbi izan ziren Gipuzkoa eta Bizkaian etxeko zaramak erretzeko proiektuak. Zergarbi ez zen onartu bere kostu altuarengatik, baina Bizkaian, Erandioko herriak ukatu eta gero, Bilboko mendi punta batean errauskailua ezarri zen duela zortzi urte. Protesta asko egon zen, baina azkenean zaramak erretzeari bidea zabaltu zitzaion. Bizkaiko ekologisten ustez, birziklatze programa egokia martxan jarritz gero, askoz merkeago egin zitekeen, Lizarraldean probatu zen moduan. Han zaramaren %70 birziklatzen zen, baina hori ez zen Bizkaian posible izan, agintari politiko eta “enpresa-aditu” batzuen aburuak tarteko, eta zarama erre egin behar izan zen.

Pasa den hilean, Zergarbirekin gertatu zen moduan, Bizkaiko bigarren errauskailuaren proiektua bertan behera gelditu da. Ez dago zarama nahikorik negozio berria egiteko. Ingurumen diputatuak aitortu du zaramaren %70 birziklatzen dela eta zarama gutxia-



INIGO AZKONA



Zergarbirekin gertatu zen moduan, Bizkaiko bigarren errauskailuaren proiektua bertan behera gelditu da. Ez dago zarama nahikorik negozio berria egiteko



go ekoizten dela, krisiaren eraginez. Eta derrepentean Bizkaiko zabortegetara Gipuzkoatik duela hiru urtetik ekartzen diren zaramak arazo nagusitzat jotzen da.

Gipuzkoako errauskailuaren proiektua geldituta dago eta atez ateko ereduari bultzada berria eman nahi zaio, ekologista eta herritar kezkatuen asmoari jarraituz. Alabaina, negozio gizonen berriz diote zaramak erretzea merkeagoa dela.

Beste politika publikoetan bezala, krisi eta murrizketen garaian, kostu ekonomikoa da, antza, irizpide bakarra. Eta zenbakiekin trapa egiten dute. Merkeena beti da zarama gutxiago mugitzea, eta aldiz, zaramarekin negozioa egiteko, ahalik eta gehien hobe.

Zarama ez da herrialde batetik bestera eramane behar, horrela batzuek mozkin ederra egiten baitute. Zarama bereiztea da bidea, zarama gutxiago eta udal aurrekontu baxuagoak izateko. Jendearen inplikazioa eta herritarren jarduera berriekin zaramaren kostuak jaitsi daitezke. Baina Sener, FCC eta bestelako zaborren enpresariei eta eurekin diru publikoa banatzen duten partiduei ez zaie interesatzen.

Egin ditzagun ondo zaramen kontuak eta Gipuzkoan bezala Euskal Herriko udalerrri guztietan atez ate moduko ereduaren aldeko jarrera nabarmenduko da. ■



TXANDAN

Castillo Suarez



Badut lagun bat esaten duena gero eta gutxiagotan ausartzen dela jendaurrean esatera kontentu bizi dela, eta lotsa ematen diola egiten dituen erosketak, txikiak badira ere, aitortzeak.

Eta badu arrazoi puska bat: alaitasuna gaizki ikusia dago gurean krisian sartu ginenez geroztik, eta askoz okerrago dago ikusia dirua alaitasunez gastatzea. Ematen du lotsa ematen digula oporretara joango garela esatea, galtza berriak erosi ditugula edo afaltzera joan garela lagunekin jabetxe batera. Ez diegula elkartasunik adierazten gu baino okerra-

Debekatua pozik egotea

go pasatzen ari direnei, ez garela jabetzen egoeraren makurraz. Baina ezinezkoa da eguneko 24 orduak arduratuta pasatzea lanik gabe dugun nebarengatik, koinatuaren enpresa ixteko arriskuaz, amaginarreba zaintzeagatik galdutako diru-laguntzaz eta egoera ekonomiko orokorrak oro har. Beti bada zer ospatu. Beti bada kontentu egoteko arrazoiaren bat. Beti badugu nori eskerrak eman. Beti. Izan ere, zaila da krisiaren ondorioak ez pairatu izana, baina horrek ez du esan nahi alaitasunerako arrazoi guztiak desagertu direnik. ■

